

Josun Iraeta

IDAZLEA

Etika eta politika

Politika, zentzurik oinarrikoenean, bizi-modu bat babestea da, Michael Oakeshott filosofo ingelesak esan bezala. Baina, egun Europan ezagutzen den moduan, greziarrak ohartu ziren politikak gatazkak konpontzeko ekintza kolektiborako ematen duen aukeraz, horretarako konpromisoaz baliatuz hain zuzen. Konpromisoa helburu etikoarekin; guztien ongizatea, alegia.

Horregatik, Mendebaldeko tradizio politikorako, Estatuak sortu zen arte, eta baita Frantziako Iraultza arte ere, politika etikaren parte zen. Ekintza politikoak *ethosa* babesten zuen; hau da, erlijioak, tradizioek, erabilerek eta ohiturek zehaztutako eta haiek zaintzeko bizi-modu kolektiboa.

Hain zuzen, printzipioz, politika jarduera askea da, guztioi irekia. Horrekin daude lotuta askatasun politikoaren eta autogobernuaren ideiak.

Baina, aspalditik dago jarduera politikoa Estatuak monopolizatuta. Horrek askatasun politikoa baldintzatzen du eta autogobernua suntsitzen. Bereziki, Estatuaren ezaugarrietako bat jarduera politikoa monopolizatzea da. Hau da: ez dago Estatuak baimentzen dituen askatasuna eta jarduera politikoa besterik, eta hark baimentzen duen moduan bakarrik.

Aipatutakoaren frogarria eta garbia gure azalean ari gara bizitzen gaur, hemen, Hego Euskal Herrian. Izan ere, nahiz eta alproja



batzuek behin eta berriz “normaltasun” itxura emateko saio zinikoak egiten dituzten, ezinezkoa da baieztatzea estatu espainiarrean politika jarduera askea dela, benetako askatasun politikoa dagoela.

Beharbada errealtate kezkarri hau da, duintasun ezaren lohian iraulkatzea nahikotzat ez duten politikari batzuen isiltasuna ugaltzen duena. Politikari horiek, haiek zerbitzea zin egin duten erakundeen ohorea “salbaziotzat” hartzen dute.

Egoera hau, erreala izateaz gain, tristeza ere bada, baina ez bat-batean sortutakoa. Kudeaketa politiko nazkagarri hau, usteltasun hau, indarrean dago, eta horrela dago gizartea izukaitz dagoelako zikinkeria pertsonalaren eta kolektiboaren aurrean. Oparaldi ekonomikoa besterik markatzen ez duen iparrotzta erabiltzen duen gizartea. Bere printzipioei poliki-poliki amore ematen ari den gizartea. Mendetasunaren ukuiluetan plitiplasta eginda “eroso” sentitzen ikasten ari den gizartea.

Mendetasunaren aurka borrokatzeko beharrezkoa da herritarren eta gizarte prozesuen arteko bitartekaritza ugaltzearen arrazoia aztertzea. Hezkuntza-sistemak eragiten duen ikusmen-analfabetismoa. Sentimenduak merkataritza gai bihurtzea eta abar.

Etikaren kudeaketa maltzurra, hainbesteren ogibide izanik. ■

Nahiz eta alproja batzuek

‘normaltasun’ itxura emateko saio zinikoak egiten dituzten, ezinezkoa da baieztatzea estatu espainiarrean politika jarduera askea dela

TXANDAN

Amatiño



Eraiketa politikoa salatzen gertu ez dagoen ezker

abertzaleak argi eta garbi esan du ez duela ETArekin kontrako salaketarik egingo, ez omen lukeelako ezertarako balio izango. Bapo. Orduan, iritzia iritzi, ezinbesteko lehen galdera honako hau baino ez da: zelan daki ezker abertzale horrek ETArekin kontrako salaketak ez lukeela ezertarako balio... ez baldin badu sekula santa aprobarik egin? Zelan daki?

Nik alderantziz uste dut, oster. Hau da, ez duela aprobarik ere egiten, aldeztetik guztiok —guztiok gero— daki-

Aproba bako teorema

gulako demaseko balioa izango lukeena. Eta, hain zuzen, benetan balio aparta

izango lukeenez gero, ez diotela uzten aprobarik ere egiten.

Gainera, ezertarako balioa ez lukeelakoan, borroka armatua salatu nahi ez duen ezker abertzale berberorrek sekulako esperientzia handia du gainerako guztien bizkar hamaika salaketa egiteko orduan. Beraz, jarrera ezberdin horrek zer esangura du: egiten dituen salaketa guzti horiek zerbitzetarako balio dutela, gainerako guztiengandik zerbitzu itxaro duela? Alegia, ETA dela ez entzun egingo liokeen bakarra? ■